

EUSKARAK 365 EGUN

HIRU

Hirugarren aldiz, Euskaraldiak eman du berea. Bai eta ez. Bukatu da hamabost egunetako ekinaldia baina Euskaraldiak arrastoa lagatzen du, txapak neguko beroki preziatuan bezala.

Euskaraldian sua pizten da, martxan ipintzen dira aho eta belarriak, ari eta entzun, entzun eta ari, eta su hori ez da hain erraz itzaltzen, gogoetek eta bizipenek bere lekua egiten dutelako gure memorieta, ohituretan, emozioetan eta azaletan.

Orain arte soraluzetarrek kontatu dutenez, ekimenak balio izan die hausnarketarako, norbere hizkuntza-ohiturei erreparatzeko, ohiturak aldatzeko gogoia pizteko, euskaraz gehiago egin ahal izateko beharko genukeena argiago ikusteko, euskaraz egiterakoan pixkat gutxiago lotsatzeko, egoera deserosoak bizitzeko, zailtasunak ezagutzeko, ausartzeko, kuadrillan / etxean / dendan / tabernan / lantegian eragiteko, euskarari eusten eta euskarazko elkarrizketak mantentzen saiatzeko, gertukoekin hizkuntza harremana gazteleratik euskarara aldatzeko, euskara plana abiatzeko, ingurukoei norberari euskaraz egiteko eskatzeko / gonbidatzeko...

Askotariko su txikiak piztu ditu Euskaraldiak Soraluzen eta bakoitzak egingo du bere bidea, besteenekin gurutzatuz.

SEI

Sei geruza, edo gehiago. Euskaraldia joan-etorrian ibiltzen da geruza batetik bestera, eta denak ehuntzen ditu: norberarena eta kolektiboa, parte hartzaileena eta antolatzaileena, erakundeena eta herritarrena. Norberak darama txapa bularrean eta aldi berean milakak; milaka lagunek egiten dute Euskal Herri osoan zehar ariketa eta ehundaka dira txindurri lanetan aritzen direnak ekimena prestatu, bideratu eta zabaltzen; ehundaka dira antolakuntzan aritzen direnak, batzuk erakunde publiko, pribatu eta sozialetan eta beste batzuk boluntario modura Euskaraldiko batzordeen bueltan. Sare zabal eta txirikordatua sortzen da ahalegin askoren baturatik.

BOST

Esan dezakegu, "niri bost!", baina milaka gara "ekarri bostekoa!" esaten dugunok. Euskaraldia txikle baten moduan luzatu eta hamabost egunean barik, egunerokoan eta urte osoan zehar euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin egitera ausartuko garen euskaltzaleak. Eta geure ardura hartuko dugu, baina laguntza ere behar dugu. Norberaren eta euskararen erakundeen borondate, ahalegin eta lanaren bide progresiboari baldintzak hobetzen joatea behar zaio. Eta hori dute zeregina, adibiderako, Hizkuntza Politikarako Sailak bezainbeste Sustapen Ekonomikokoak, kultur paisaia euskaldundu dezaketen merkatari eta ostalariek, zerbitzua euskaraz eman dezaketen enpresek, lurralde elebidun/eleanizetan herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko ardura duen administrazioak. Bostekoa hartu eta eman egiten delako aldi berean. Garai ezin hobea da elkarlanean euskaraz egiteko aukerak sendotzeko.

Eutsi hitzari, bultza ekimenarekin, orain da garaia!